

DIRU ITURRIAK

Lehenago aipatu dugun bezala, gure aplikazioaren funtzio nagusia gure bezeroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta ondasunak ikusgai jartzea da, beste bezeroek, hauek erosi edo kontratatu ditzaten. Hortaz, kontuan hartzen badugu bezeroek autonomia handia dutela gure enpresaren barruan, haiek jartzen baitituzte beren produktu edo zerbitzuen prezioak, esan dezakegu gure aplikazioko prezioak beraien artean desberdinak diren arren, gauza desberdinak eskaintzen baitituzte, prezio finkoak direla. Izan ere, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daude. Gainera, bezeroek produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen dieten prezioak eskaintzen ditu ZUBIk, zerrendako prezioak dira hauek. Horrez gain, ezaugarrien araberako prezioak ere eskaintzen ditugu: produktuaren kopuruaren edo kalitatearen araberako prezioak ezartzen direlako. Azkenik, bolumenaren araberako prezioekin ere topatu daitezke gure aplikazioan; izan ere, prezioak aldatu egiten dira, erositako kopuruaren arabera. Geroz eta gehiago erosi, produktua edo zerbitzua orduan eta merkeagoa ateratzen da. Laburbilduz, gure enpresan prezio finko mota ezberdinak egongo lirateke; izan ere, gure bezeroak dira haien produktuari prezioa jartzen diotenak, beraz, desberdintasunak egon daitezke prezio moten arabera.

Enpresari hasiera eman ahal izateko, eta beraz, proiektua aurrera atera ahal izateko, gutako bakoitzak 500€ jarriko ditu bere poltsikotik. Uste dugu ez dela beharrezkoa izango aurreikusitakoa baino diru gehiago inbertitzea. Hala ere, egoera kritiko batean bagaude prest gaude gure proiektuarengatik borrokatzeko eta diru gehiago inbertitzeko; izan ere, ZUBI enpresa gizartearentzat lagungarria dela uste dugu eta bere ekarpena egin dezakeela gizartea hobetzeko, beraz, dena emango dugu jendea gure proiektua ezagutu dezaten.

Irabazi-iturriarekin jarraituz, gure diru-iturri nagusia aplikaziotik lortuko dugu, komisioen bidez hain zuzen ere. Hau da, gure bezeroek haien zerbitzuak eta ondasunak saltzean, irabazten duten diru kopuru horren %15a guregana bideratuta egongo litzateke. Hau, ordainketa bakarraren bidezko sarrerak izango dira, hots, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direlako.

Bestalde, gure aplikazioa dohanik deskargatu daitekeela kontuan hartuz, mikroordainketen bidez dirua ateratzea pentsatu dugu. Horregatik, irabazietako zati bat enpresa autonomoen iragarkietatik aterako dugu. Hau dela bide, geure herriko autonomoekin jarriko gara kontaktuan lehendabizi. Haien eskeintzak gure aplikazioan iragarki modura jartzeko; honela, gure herriko autonomoek jendearen esker ona irabazteko aukera eduki dezakete; beraz, modu batean edo bestean, ZUBI laguntza ematen ari zaie. Gainera, diru-sarrerak lortzeko publizitatea modu eraginkorra da, gure herrian hainbat autonomok izena eman dutelako gure aplikazioan haien iragarkiak jartzeko. Gainera, asko direnez izena eman dutenak; hala nola, Naif eta Natalietta, pentsatu dugu gure aplikazioan iragarkiak soilik hilabete batez egotea, honela autonomo gehiagok iragartzeko aukera izango lukete. Beraz, honela funtzionatuko luke publizitateen gaiak: iragarkiak hilabete baterako jarriko dira jendaurrean, eta 3€-ko kostua izango du. Autonomoren batek gehiago iragarri nahi badu, aparteko hilabete bakoitza ordaindu beharko du. Baina, gehienez 6 hilabetez egon daiteke haien iragarkiak ZUBI aplikazioan, beste autonomoei ere iragartzeko aukera uzteko. Publizitatearen bidez lortutako diru-sarrerak, ordainketa errepikarien bidezko sarrerak izango dira, alegia, zerbitzu jakin bat erabiltzeko bezeroak modu jarraian egiten dituen ordainketetatik eratorritakoak izango direlako.

★ Adibidez: 5 hilabetez iragarri nahi badu, ordaindu egin beharko luke: $3 \times 5 = 15 \text{ €}$

3= hilabete bat egoteagatik ordaindu beharreko tarifa.

5= iragarkia gure aplikazioan egon nahi duen hilabete kopurua.

15€= 5 hilabetez iragarkia gure aplikazioan egoteagatik ordaindu beharreko kopurua.

Ildo beretik jarraituz, gure aplikaziotik publizitatea kentzea ere posible izango da 2,99€ ordainduz gero. Aukera honi Premium 1 deitu diogu, eta gure aplikazioan egongo den beste

mikroordainketa bat izango litzateke, zeina ordainketa bakarraren bidezko sarrera den, hots, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratorriko baita. Hau da, erabiltzaileak behin bakarrik egin behar du ordainketa hori, eta Premium funtzioa desblokeatuta edukiko luke. Honek, zenbait aukera eskainiko dio gure bezeroari ZUBI aplikazioaren barruan; esate baterako, lehen aipatu bezala, iragarkiak kentzea eta aplikazioa wifi gabe erabiltzeko aukera izatea.

ZUBI aplikazioaren funtzio nagusia gure bezeroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta ondasunak ikusgai jartzea da, beste bezeroek, hauek erosi edo kontratatu ditzaten. Gainera, balorazioak egiteko aukera ahalbidetuko dugu, bertan izartxoak betetzeko eta iritzia jartzeko. Geroz eta balorazio hobea eduki, orduan eta postu altuagoak edukiko dituzte, aplikaziora sartzerakoan haien perfilak besteenak baino lehenengo azalduko dira. Baina, premium bat eskuratzeko aukera ere edukiko dute, eta hau ordainduz gero, APPera sartzerakoan haien perfilak lehenengotakoak azalduko dira. Hau da, haien zerbitzuak edo ondasunak salgai jarri nahi duten bezeroei abantaila ezin hobea bat eskaintzen diogu: Premium 2 deiturikoa. Hau, ordainketa bakarraren bidezko beste diru-sarrera bat da, eta 3,99€ ordaindu beharko dute gure bezeroek aukera honetaz gozatzeko.

Horrez gain, ondasun bat saltzen dutenean, eroslearen etxera guk geuk eramateko arduraren hartuko dugu prezio ekonomiko baten truke. Aukera hori bezeroak eskatzen badu soilik izango litzateke. Hau ere, ordainketa bakarraren bidezko sarrera bat izango litzateke eta prezio ezberdinak izango ditu gure zerbitzu honek: alde batetik, Gipuzkoa barneko eskaerak 1,99€-ko kostua izango lukete. Bestalde, Gipuzkoatik kanpokoak, 2,99€. Gainera, haien produktuak 24 ordutan iristea nahiko balute, 3,99€ ordaindu beharko dute. Halaber, janaria erosten duten bezeroek ezingo dute aukera hau izan, eskaerak 3 egunetik 7ra bitartean iritsiko baitira.

Eduki ditzazkegun irabaziak urte batean:

ATALAK	ATAL BAKOITZAREN PREZIOAK	BEZERO KOPURUA URTEKO	URTEKO IRABAZIAK	URTEKO IRABAZIAK GUZTIRA
GARRAIOA	Gipuzkoa barruan - 1.99€	10	19.9€	144.5€
	Gipuzkoatik kanpo - 2.99€	35	104.65€	
	24 ordu baina gutxiago - 3.99€	5	19.95€	
KOMISIOA (Bezeroen %15)	Zerbitzuak - 4.5€/ astean	200	43.200€	46.800€
	Ondasunak - 20€	100	3.600€	
PREMIUM	Premium 1 - 2.99€	30	1076.4€	3470.4€
	Premium 2 - 3.99€	50	2.394€	
IRAGARKIAK	Iragarkia - 3€	60	180€	180€

Beraz, taulan ikusi daitekeen bezala, gure lehenengo urteko diru sarrerak 50.594€-koak izango lirateke; hauei lehenengo urteko kostuak kentzen badizkiegu, 845,53€, 49.748,47€-ko emaitza ekonomikoa lortuko genuke. Kontuan hartuta %10a bai ospitale bai GKE-etara bidaliko dugula, 4.974,85€ emango dizkiegu, gu 44.773,62€-rekin geldituz. Bestalde, gu bost taldekide garenez, bakoitzak urtean 8.954,73€ irabaziko lituzke gutxi gorabehera. Gu bigarren batxilergoko ikasleak garenez, uste dugu, nahikoa diru irabaziko dugula, nahiz eta gure helburua ez den dirua lortzea, baizik eta besteei laguntzea.

